LAB Irakaskuntza
Buletin digitala
2006ko maiatzaren 26a
ale berezia

## LAN LEGEPEKOAK + ORDEZKOAK

## ERRELEBO KONTRATUA

Ikasturte honetan martxan hasi den errelebo kontratuak, Gipuzkoako herrialdean hainbat egoera larri izan du, zeintzuk hasiera batean, errelebo kontratua egun ezagutzen dugun bezala kinka larrian jarri izan dute. EAEn bai errelebo kontratua hartu duten edo nahi duten langileen eta hauek ordezkatuko lituzketen ordezko langile artean larritasuna zabaldu da, Gipuzkoan batez ere.
Baina kokatu dezagun auzi hau dagokion lekuan, egun gai honen inguruko gora beherak ez dira jubilatu eta ordezkoen arteko auzia. Administrazioen kudeaketa arazo larrien ondorioa baizik.
Hezkuntza Administrazioaren aurreikuspen ezak eta mahaietan planteatzen dituen errelebo kontratua bezalako oinarrizko gaiak ixteko kontraste lan kaskarrek, azkenean kudeaketa txarrak dakartza, zeintzuek langileek pairatu behar dituzten.
Administra behin eta berriro duen jokamolde hauek salatzera gatozkizue.
Arazoak urritik detektatuta eta hasieratik Hezkuntza Administrazioarekin egoerari irteera bat bilatzeko eskaerak luzatu genizkien, luzatzen utzi ditu. Orain berriz, kolektibo desberdinetako esleipenak gainen ditugunean, langileen urduritasunarekin jokatuaz. Auzia eta presioa, langile eta alde sindikalaren gainean jarri nahi izan dute, erantzukizun guztia Administrazioarena denean.
Berriro ere diogu, honetan ez dugu ontzat emango Administrazioaren jokaera.

**LABen jarrera oso argia da hasieratik errelebo kontratuaren auzi honekiko:**

- Egoeraren konponbiderako, berehalako irtenbide bilatzea. Baina inola ere, inplikaturik suertatu diren bi langile kolektiboen eskubideak urratuz.
- Jubilatu nahi duten langileen eskubidea errespetatu, era berean ordezkoen arautegia errespetatuz.
- Ez dugu ontzat emango, inolaz ere Administrazioaren eta beste sindikatu batzuen interes partikularrengatik,eman nahi den irtenbidea. Antzinatasun eskubidea urratzea, ordezkoengan, hezkuntzako langileriaren kateko kolektibo ahulenean,.

| Araban | Bizkaian | Gipuzkoan | Nafarroan | Iparraldean |
|---|---|---|---|---|
| Bueno Monreal, 10 Behea | Rekalde zumarkalea, 62 | San Bladi 1, behea | M.Zelaieta 75, 2.A | 13 Marengo Karrika |
| 01001 Gasteiz | 48010 Bilbo | 20013 Donostia | 31014 Iruñea | 64100 Baiona |
| Telf.: 945 259 544 | Telf.: 944 706 900 | Telf.: 943 458 562 | Telf.: 948 382 474 | Telf.: 0559595020 |
| Faxa.: 945 258 039 | Faxa.: 944 706 909 | Faxa.: 943 456 645 | Faxa.: 948 221 276 | Faxa.: 0559595021 |
| irakaskuntzaaraba@ labsindikatua.org | irakaskuntzabizkaia@ absindikatua.org | irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatua.org | irakaskuntzanafarroa@ labsindikatua.org | baiona@ labsindikatua.org |